

1 TXINDOKIKO ITSASO

Hizak: Agüta.

Musika: herri musika. Zegamako Patsi Gorrotxategi albokariari ikasi. Gipuzkoako albokari zaharren errepertorioko fundazioa.

Alboka, panderoa, trikitia, biholina, kitarra, abestia

Tximista bat argi biziz Ganbotik Nafarrira:
Zure bi begi beltz hoiek damaiguten distira.
Zango bat harria duzu, bigarrena burdina
Sustraietan arbasoen itxaropen urdina.

Errekatik ibai eta erriotik itsaso
Aralarko pagadiak zure kresalari so.
Zure bi begi beltz hoiek damaiguten distira
Tximista bat Txindokitik itsas zabal erdira.

2 "XOMORRO" ETXERA!

Hizak: Agüta.

Musika: herri musika. Juan Aiesta, Behiako dultzaineruaren errepertorioko porrasaldia (Arriañe - Bizkaia).

Dultzaina, trikitia, panderoa, biholina, kitarra, abestia

Mutil gazte gogorra, irri ta bibote
Mutil gazte gogorra, irri ta bibote
La Manchán egon arren ez da Don Quijote
Ai, oi, ai, ez da Don Quijote
Hagina basamortu latzean daukate.

Neguan izoztu ta udaran labea
Neguan izoztu ta udaran labea
Zuhaitz euskaldunentzat erruki gabea
Ai, oi, ai, erruki gabea
madarikatzen dugu espainol legea.

Haginaren ametsa da Goiko Errota
Haginaren ametsa da Goiko Errota
Manchako errotekin gaur behar borroka
Ai, oi, ai, Manchako borroka
Cervantesen ilobak nola ez gorrota!

"Ongi Etorri" tikan Tomellosoraino
"Ongi Etorri" tikan Tomellosoraino
Ez dago besterik lehorteá baino
Ai, oi, ai, euri eta laino
Tomellosotik bueltan Aginagaraino.

3 DANTZA LUZEA

Musika: herri musika. Larazideko Inaerrietako dantza multzo bat da.
M.A. Sagastaren "Larazideko dantza" liburitik hartua.
Akordeoiu, klarinetu, txirulo, damborra, biholina, kitarra



Erramuntso Orkestra. (59-02-01). Iñaki Irigoien. (Dantzariak 52)

4 AMERIKETAKO PANPETAN

Hizak: Pedro Mari Otaño (Zinakil 1857 - Argentina 1910).
Musika: Juan Mari Beltrán Argüelles.
akordeoa, txistu, danbolina, bibelina, kitarra, aboia

1. Euskal Herriko lur maite hartan
jaino nintzan baserrian
itzal haundiko intxaurre arbol bat
dago gure atarian
haren ondotik irten da noizbait
maldaiko gaztainadrian
edo sagarrik omenak jaten
Luberriko sagastian
arbol tartian bizitu nintzan
gazte denbora guztian.

2. Denak utzi ta etorri nintzan
lur hau ikusi nahi nuan
haritz tantaik pago lerdengan
nola ez izan goguan
orain artzantzan Ameriketean
arrantxo baten onduan
eguna igaro larrean eta
jiratzen naizen orduan
nire begiak gozatzen dira
aldameneko ombuan.

5. Nire lagunik maitatuena
ombu laztana zu zera
hargatik nator zure kolkora
ni malloak ixurtzera
iduriturik naramazula
atariko intxaurrepera
beti izango zaitut goguan
baina joan nahi det ostera
Euskal hurreko zuhaitze hartan
nire hezurrak uztera.

3. Hainbestearino tristetzen naiz
eremu zabal hoietan
arbolak mendi eta errekek
falta diran zelaietan
non etorri eta eseritzean
ombu zahar honen zainetan
edo igo ta hosto tartean
bere adar bikinetan
ene amatxo nik nola esan
zenbat gozatutzen dedan.

4. Txabol ondoko ombu laztana
maitatzen zaitut gogotik
eta bihotza erdibitzen zait
joatean zure ondotik
nire burura ekartzan dezun
oroimen gozuegatik
zure itxura nahi det ikusi
ez dizut eskatzen frutik
ni hemen bizi naizen artian
arren egon zaite zutik.



Maurício Elizalde, Aritxungo txistularia.
(1915-1992)

6

JOSE MONDRAGONEK

Heri kanta. Aduaren kantuegirik hartu. Aduak Atamiako
Silbestre Bengoari 1915. urtea baino lehen jasoa.
Akordeoa, txarlatako flauta, bibelina, kitarra, aboia

5 BAZTANGO ZORTZIKOA

Musika: heri musika. Aritxungo Maurício Elizalde (1915-1992) txistulari
espetsialari ikusia. Nafarroako Batain bularako lastiza eragonez.
Txistu, danbolina, akordeoia, txabala, bibelina, kitarra

Jose Mondragonek dauko
katua por gafa
gurean bere ez dago ta,
Monona,
ain bere ta argala.
Ay, si si
Ay, no no
Markelorino, Marketxuleta
Marketxo txuria no!
Berrogeita hamar erralde
zerbait gutxiago
errotako pisuetan
pisaturik dago.

Ay, si si...
Goiko sala barrian
emon notsan gatza
hartuko ete dostan,
Monona,
daukat beldur gatxa.
Ay, si si...

Irrietan arrautetan
zortzi egun hontan
gure andrak derautse,
Monona,
koipeak urketan.
Ay, si si...

Anaiari bialdu notsan
erregalu mortzila
ezpainak koipatuta,
Monona,
Han dabil mutila.
Ay, si si...
Surmintz eta belarriak
ondó gordetako
auzoko jendeentzat,
Monona,
San Kristobal-eko.
Ay, si si...

7 AURITZEKO KARRIKA-SOINUAK

Musika: herri musika. A. Donostiaren kantategitik hartua. Mendle honen hasieran Auritzeko festaren jostura zen Alamedako "Josta Argi" txistularien josa.

Xirelarru-bota, txistu, akordeoia, dambolina, panderoa, atabola, bibelina, kitarra



Auritzeko Karrika. (Dantzariak 36)

9 EUSKARAZ BIZI

Hitzak: Agüta.
Musika: Juan Mari Beltran Argitena.
Atarrabian ospatu zen "Nafarroa Onsez 1991"-rako egindako kantua.

Dantzaina, alboka, akordeoia, zharbako flauta, panderoa, dambolina, bibelina, kitarra, abeta

Maitasun katez lotu
Kortes ta Garazi
Irati ta Bardeak
loratu arazi
Aralartik Leirera
geureari utsi
Atarrabian oihua
gaur euskaraz bizi.

1. Añamenditik azkar ekaitz
Erriberan gora
hego hortiza
Erreino zaharrak
ernal bizitza
Iruñean dauka
geroak giltza
2. Kanpionek Argan
amets iturri
Erobino Xalbador
bertosant ari
egarritz bait dago
hainbat lur gorri
euskaraz gainezka
Ebro ta Aturri.

3. Euskal-Herriaren
su-arragoa
txistu ta gitarraiz
gaita harroa
sei kimu berriez
sendo erroa
Atarrabiera
bil Nafarroa
4. Ziganteen dantzen
handitasuna
arrano zahararen
harrotasuna
baztertu lotsaren
zama astuna
euskaraz mintzo da
etorkizuna.

8 TXULO

Musika: herri musika. A. Donostiaren kantategitik hartua. San Bizente eguztan Oñen (Arabako Errioxa) egiten zen dantza. Dantza honetan entzan diralotzega gara botan inguru horretan erabiltzen zea xirelarru edo "bota" izeneko soinutresna.
xirelarru-bota, akordeoia, panderoa, bibelina, kitarra



Errioxako Xirelarrua "Bota"

10 O PELLO PELLO

Herri kanta.
Arkueren kantategitik hartua. Hemen aurkitzen dugu kantu eragun honen Lapurzikot bertsioa.
Txistu, txistuina, akordeoia, bibelina, kitarra, abeta

O Pello Pello, logale nauk eta
jinen niza oherat?
Irun ezan eta, gero, gero,
irun ezan eta, gero, gero, bai.

O Pello Pello, irun diat eta
jinen niza oherat?
Astalka zan eta, gero, gero,
Astalka zan eta, gero, gero, bai.

O Pello Pello, astalkatu diat eta
jinen niza oherat?
Harilka zan eta, gero, gero,
harilka zan eta, gero, gero, bai.

O Pello Pello, harilkatu diat eta
jinen niza oherat?
Irazki zan eta, gero, gero,
irazki zan eta, gero, gero, bai.

O Pello Pello, irazki diat eta
jinen niza oherat?
Argia ezan eta, gero, gero,
josi ezan eta, gero, gero, bai.

O Pello Pello, josi diat eta
jinen niza oherat?
Argia dun eta, bihar, bihar,
Argia dun ta, jinen hiz bihar.

11 SORGIN DANTZA

Musika: herri musika.
Arkueren kantategitik hartua. Gipuzkoa kostaldeko Matrikan josa.
Txistu, dambolina, akordeoia, bibelina, kitarra, sorgin oihuak



Sorgin-dantza de Oriu.
Mikel Lizarru.
(Dantzariak 47)

12 ORAIN 500 URTE

1.

Orain 500 urte hasi zen ipuin hau itsasoratu ziren berrehun bat kristau. Hiru belantztan Amerika bilau jefea Colon eta Zisneros kapelau.

3.

Jainkoaren indarrak eta bere omenez gurutzea armatzat eta santutasunez, Espainako errege katoliko legez indio lurraldea bete zen zaldunez.

2.

Santa Maria, Pinta, eta Niña izenez, bertako indioek gero esan zutenez. Atrakatu ta bela muxuz ta otoiitez muxuz muku musutruk lurraz jabetu zinez.

4.

Isabel ta Fernando eta Cristobal Colon erregina Doña zen eta erregea Don. Koloniza Kistoka kristoak edonon, zintzariak lepotan jarriz tilin talan toln!

13 KATADERA DANTZA

Musika: herri musika. A. Donostiaren kantategitik hartua. Baxenafarroko Arnegin jasotako antiki dantza. Euskal folkloren naz agertzen den dantza-jokurako bat. *Zarrabetoa, tsirala, muntana, akordeoi, bibolina, kitarra*

Arnegiko katadera dantzaren antzeko irribasko silla dantza




Hitzak: Xabardin.
Musika: herri musika. Ameriketako "Inca" kulturako dotu bat. *Txitxoa, danbolina, akordeoi, panderoa, bibolina, kitarra, abetea*

14

KORTES-KO DANTZAK

Musika: herri musika. Korteko Dantza multzoak balza eta kalejira. "Cancionero Vasco P. Donostia" kantategitik hartua. *Dulzaina-gaita, trikitia, danberro, bibolina, kitarra*



Korteko Dantzariak (1930). (Dantzariak 12).

15 ARIN-ARINKETAN

Herri kanta / txalaparta ingrobasaketa.
Betas, txalaparta ingrobasaketa; hit eginez. A. Donostiak Gipuzkoako herri erberdientan jasotako hiru arin-arin sartzen dira. Hiru abesti hauek, Azeri dantza, Aldapeko Maria (Orio) eta Baratzeko pikauk (Donostia) dira. *Txalaparta, akordeoi, bibolina, kitarra, abetea*

AZERI DANTZA

Alpargatak urratu ta zapatarik ez. Erniuaz gelditu naz oinek minez.

Hauxen da egia zortziko berria, hiru txiki ardorekin libranko ogia.

ALDAPEKO MARIA

Aldapeko Maria seme egirik dago haren bisitara joateko nago.

Rau rau rau dotia badut baina Rau rau rau nik zertako det hau.

BARATZEKO PIKUAU

Baratzeko pikauk hiru txortean ditu dantzan dabilen horrek hankak arin ditu.

Hankak arinak eta burua arinago dantzan hobeto daki artajorran baino.